

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikatutako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
7/2012	R26/2015	2015-12-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen helbide fiskala

R 26/2015 Ebazpena

7/2012 Espedientea

Vitoria-Gasteizen, 2015eko abenduaren 28an

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero batzordeburuak eta Isaac Merino Jara eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek osaturikoak, honako hau

## HITZARTU DU

Bizkaiko Foru Aldundiak 2012ko otsailaren 3ko idazkiaren bidez aurkeztutako gatazkaren inguruan. Horren sarrera 12an erregistratu zen eta Koordinazioko eta Laguntza Teknikoko zuzendariordeak sinatu zuen. Horren bidez eskatzen da ---- IFZ duen 1. ERAKUNDEA (aurrerantzean, «erakundea») erakundearen helbide fiskalaren zuzenketa egokitzat jotzea; izan ere, hori Madrilen zegoen kokatuta 2008ko urriaren 2tik, data horretan helbidea benetan Bizkaira aldatu gabe, erakundeak aitortutakoa alde batera utzita. Gatazka hori 07/2012 espediente-zenbakiarekin izapidetzen da Arbitraje Batzordearen aurrean, Isaac Merino Jara jauna txostengile duela.

## I. AURREKARIAK

1. Espedienteak honako aurrekari hauek ditu:

- 1. ERAKUNDEA sozietatearen jarduera higiezinaren sustapena da, eta 2002an eman zuen alta EJSNn. Orduan, horren egoitza soziala Madrilen zegoen, 1. HELBIDEAN.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikatutako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
7/2012	R26/2015	2015-12-28	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

- 2008ko urriaren 2an hartutako eta, hilaren 13an, Madrilen, 1. NOTARIO jauna notarioaren aurrean eskritura publikoan jasotako hitzarmen sozialaren bidez, egoitza soziala Bilbora eraman zen, 2. HELBIDERA.

- 2008ko abenduaren 16an, 1. ERAKUNDEAK 036 eredia aurkeztu zuen Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren aurrean, helbide fiskala aipatu berri den helbide fiskalera, hau da, Bilboko 2. HELBIDERA aldatzen zuela jakinaraziz.

- 2009ko urtarrilaren 22an, kideen Batzar Orokorra egin zuten, Bilboko egoitza sozialean. Bertan, ordura arte sozietatearen Administrazio Kontseilua osatzen zuten honako kontseilari hauek kargua utzi zuten:

a) 1. KONTSEILARIA jauna, kontseilari delegatua, helbide profesionala Madrilgo 3. HELBIDEAN duena, aurretik aipatutako eskritura publikoan agertzen denaren arabera, bere NANean helbidea Madrilgo 4. HELBIDEAN agertzen bada ere.

b) 1. PRESIDENTE jauna, presidentea, Madrilen helbidea duena.

c) 1. SOZIETATEA, batzordekidea, arrisku-kapitaleko enpresa, zergapekoaren kidea eta egoitza AEBn duena.

d) Eta 1. BATZORDEKIDE jauna, batzordekidea, Madrilen helbidea duena.

Aipatutako Batzar Orokorrean, aurretik aipatutako administratzaileek kargua utziz gain, administratzaile bakarra izendatu zuten 1. KONTSEILARI jauna.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
7/2012	R26/2015	2015-12-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen helbide fiskala

- 2009ko urtarrilaren 26an, Madrilen, eskritura eman zen 1. NOTARIO jauna notarioaren aurrean; horren bidez, aipaturako Kideen Batzar Orokorraren hitzarmen sozialak publiko bihurtu ziren.

- 2009ko otsailaren 23an, erakundearen Administrazio Organoaren aldaketa hori argitaratu zen Merkataritza Erregistroaren Aldizkari Ofizialean.

- 2009ko martxoaren 9an, zergapekoak zentsu-aitorpena aurkeztu zuen (036 foru-eredua) Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrean (aurrerantzean, BFA). Bertan, Bizkaiko Foru Ogasunaren zergapekoen zentsuan alta egiten zuela jakinarazten zuela, egoitza soziala Bilbora aldatzearen ondorioz.

- 2010eko otsailaren 5ean, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Sailaren Sozietateen gaineko Zergaren sailburuak Sail bereko Zentsu Sailari bidali zion 1. ERAKUNDEARI buruzko dokumentazioa (bidaltzailearen arabera, 2007ra arte, horrek lurralde erkidean izan du helbide fiskala), helbide fiskala aldatzeko dagokion espedientea hasteko. Bidalketa-idazkian adierazten da, alde batetik, dokumentazioan, «egiaztatu daitekeela horretan parte hartzen duten erakundeak, administratzaileak eta parte hartzen dituen erakundeak ez dutela inolako zerikusirik Bizkaiarekin. Altan emanda agertzen da ekonomia-jardueren gaineko zergan, higiezinaren sustapeneko epigrafean, gauzatzen dituen sustapenak euskal lurraldean gauzatu gabe. Gainera, 2009an banku-erakundeetatik jasotako korrespondentzian, Madrilgo helbidea agertzen da. Ez da BEZ aurkezpenik agertzen 2009ko ekitaldian, lurralde horretan. 2008ko sozietateen gaineko zergaren autolikidazioan agertzen den Bizkaiko helbidea Bilboko 2. HELBIDEA da. Katastro-datuen arabera, horren titularra 1. ENPRESA DA.» Beste aldetik, jakinarazten da «sail horretatik bidalitako errekerimendu-jakinarazpena jaso izanaren adierazpena sinatu zuen pertsona 1. KONTABLEA dela (NAN). Hori ekonomia-jardueren gaineko zergan alta emanda agertzen da, 2.798.000 epigrafean, eta bere jardueraren helbidea. 1.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
7/2012	R26/2015	2015-12-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen helbide fiskala

ERAKUNDEAREN bera da. 2008ko eta 2009ko 390 ereduetan, pertsona horrek adierazten du ez duela inolako jarduerarik gauzaten».

- Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Saileko Sozietateen gaineko Zergari buruzko sailburuak aipatzen duen dokumentazioa honako hau da:

a) 1. ERAKUNDEAK 1. GESTORIA Gestoria Administratiboaren bidez Bizkaiko Foru Aldundiaren bidez aurkeztutako sozietateen gaineko zergaren 2008ko autolikidazioa. Horren emaitza 1. ZENBATEKOA euroko kopuruaren itzulera da, eta hori Bizkaiko Foru Aldundiaren datu-basean agertzen da, 2009ko irailaren 10ean bertan deskargatuta.

b) Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Sailaren 2009ko azaroaren 3ko errekerimendua; horren helburua da 1. ERAKUNDEAK aurkeztutako 2008ko ekitaldiko sozietateen gaineko zergaren autolikidazioaren (200 eredua) inguruko dokumentazioa eskatzea. Horren aurrealdean, honako hau adierazten da:

«Xedapen legalen arabera, goian adierazitako kontzeptuaren inguruan Administrazio honi dagozkion zerga-jarduerak amaitzeke gaude eta, horiek behar bezala betetzeko, datuak osatzea edota Bizkaiko Lurralde Historikoko Tributuen 2/2005 Foru Arauaren 92. Artikuluan jasotako atribuzioen erabileran jasandako akatsak zuzentzea beharrezkoa denez, errekeritu egiten zaie, atzealdean aipatutako datuak eta dokumentuak eman ditzaten».

- Emandako epearen barnean (15 egun baliiodun, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera), zehazki, 2009ko azaroaren 30ean, 1. KONTSEILARI jaunak aipatutako errekerimendua betetzen du 1. ERAKUNDEAREN izenean eta hori ordezkatzuz.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
7/2012	R26/2015	2015-12-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen helbide fiskala

- 2010eko otsailaren 9an, Bilboko 2. Merkataritza-arloko Epaitegiak 1. ERAKUNDEAREN borondatezko lehiaketa aitortu zuen, zegokion Autoa emanda. Prozeduran zehar, 2012ko urriaren 24ko BOEn argitaratutako ediktuan jasotakoaren arabera, Epaitegi beraren 2012ko urriaren 9ko Autoaren bidez, lehiaketaren likidazio-fasea irekia aitortu zen, honako hau hitzartuta: «administrazio-gaitasunen galarazpena zein esku hartutakoaren xedapena aitortu ziren horren ondarearen gainean, merkataritza-sozietatea desegitea aitortuta, erakundearen administratzaile sozialen funtzioaren etetea bezala; izan ere, lehiaketa-administrazioak ordezkatu ditu horiek». (Datu hori gatazka Arbitraje Batzordearen aurrean aurkeztu ondoren eman bazen ere (2012ko otsailak 7), komeni da aipatzea, 2013ko otsailaren 13an, lehiaketaren likidazioa eskatu zela aipatutako Epaitegiaren aurrean, eskatutakoa hitzartuta, martxoaren 6ko NNN/2013 Autoaren bidez).

- 2010eko otsailaren 9an, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Saileko Zentsu Fiskalen Sailaren buruak idazkia bidali zion Sail bereko Tributuen Ikuskapeneko Zerbitzuaren buruari, helbide fiskalari buruzko txostena eskatuz, honako honetan ezarritakoaren arabera: «Ogasuneko Zuzendaritza Orokorraren irailaren 20ko 6/2006 Instrukzioa, zergadunaren helbide fiskalaren zuzenketa-prozedura sustatzea behar dela hautematen den espedienteen izapidetzeari buruzkoa, eta 1. ERAKUNDEA sozietateak (IFZ: ----) helbide fiskala gaizki ezarrita izan dezakeela aldarrikatzen duten Sozietateen gaineko Zerkaren Sekzioaren seinaleen aurrean».

- 2010eko martxoaren 5ean, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Sailaren Ikuskapenak bisita egin zuen erakundeak Bilbon aitortutako helbidera (2. HELBIDEA), helbide fiskal egiaztatzeko, Bizkaiko Lurralde Historikoaren martxoaren 10eko Tributuen 2/2005 Foru Arau Orokorraren 47. Artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Ekonomia Itunaren 43. Artikuluan

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
7/2012	R26/2015	2015-12-28	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

xedatutakoaren arabera, 1. ERAKUNDEAREN administrazioaren arduradun bezala. Zegokion eginbidea luzatu egin zen, aipatutako Tributuen Foru Arau Orokorraren 97.8 artikularen babesean. Horretan, aurkeztutakoaren honako adierazpenak islatzen dira:

a) sozietatearekin duen harremana merkataritzakoa dela erabat eta ahozko kontratua duela jatorri. Horren arabera, fakturatu egiten dio aipatutako sozietateari «lankidetzaz» kontzeptuarengatik emandako zerbitzuengatik, aurkeztutakoak bere fakturretan islatutakoaren arabera. Era berean, aktuarioak eranstean du horietako bat jarri zutela bere esku.

b) kontabilitate- eta erregistro-dokumentazio osoa eta igorritako zein jasotako faktura guztiak lehiaketa-administrazioa daraman bulego profesionalak dituela. Hori 1. ABOKATUA jaunarena da, Bilbon kokatuta.

c) 1. ERAKUNDEAREN aitortutako helbidea bezala agertzen den higiezinaz 2. SOZIETATEA sozietateak duela errentatuta. Hori familia-entresa da eta aurkeztutakoa kidea da; ondorioz, ez dago harreman juridiko zuzenik aipatutako higiezinaren eta 1. ERAKUNDEAREN artean.

d) kontabilitatearen zati bat Bilbon gauzatzen duela aurkeztutakoak, eta bestea Madrilan gauzatzen duela 1. ZUZENDARIA andreak.

e) fakturen, emate-agirien eta merkataritza-gutuneriaren igorpen- eta jasotze-tokia Madrilgo lan-zentroa dela; bertan dago zentralizatuta enpresaren gerentzia eta zuzendaritza eraginkorra.

f) artxibo batzuk Madrilan daudela, eta besteak Bilbon.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
7/2012	R26/2015	2015-12-28	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

g) zerga-aitorpenen kopiak Bilboko 2. HELBIDEKO bulegoan izan direla baina, ikuskapen-bisitaren unean, lehiaketa-administrazioaren eskuetan daudela.

h) banku-dokumentazio osoa Madrilgo gerentzia-zentroan dagoela.

i) langileen eta euren kontratazioaren inguruko gai guztiak ere (matrikula-liburua, nominak, kotizazio-dokumentuak, etab.) Madrilgo gerentzia-zentrotik gauzatzen direla.

j) enpresaren zuzendaritza 1. KONTSEILARI jaunari dagokiola.

k) aurkeztutakoak ez duela sinadurarik, eta ez dela 1. ERAKUNDEAREN ahaldua.

l) kideen izena eta helbidea, bakoitzaren sozietateko partaidetza-ehunekoak eta administratzaileen izena eta helbidea Administrazioak duen dokumentazioan agertzen diren datuak direla.

m) ez dakiela helbidea Bizkaira aldatzea adostu zuen azken Batzarretik bestelakorik egin denik ondoren; hala ere, horrela izango dela uste du, konkurtso-prozesua dela eta.

n) sozietateak ez duela higiezinik ibilgetu gisa; aldiz, bidean dauden edo amaitutako existentzia gisa ditu.

ñ) pertsonalki, Ikuskapenaren zerbitzura dagoela, dagokion errekerimendu ofizialaren ondoren, beharrezko dokumentazioa emateko. Hori dagokion lan-zentroari edo bulegoari eskatuko lioke, eta eransten du ez duela baimenik inolako kontabilitate-agiriren kopiarik emateko aipatutako errekerimendu ofizialik gabe; izan ere, enpresaren

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikatutako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
7/2012	R26/2015	2015-12-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen helbide fiskala

zuzendaritza eta azken kudeaketa ez daude bere menpe, baizik eta 1. KONTSEILARI jauna administratzailearen menpe.

- 2010eko martxoaren 16an, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Sailaren Ikuskapen Zuzendariordetzak Zentsu Fiskalen Sekzioak eskatutako aipatutako txostena bideratu zuen. Bertan, Foru Ogasunean eskuragarri dagoen informaziotik eta Txostena sinatzen duen aktuarioak gauzatutako jardueretatik lortutako ekintza eta gertaera jakin batzuk islatzen dira eta, bereziki, 2010eko martxoaren 5eko eginbidean dokumentatutakoak. Zehazki eta laburtuta, honako hauek liriateke:

a) 1. ERAKUNDEAREN egoitza soziala Bilbora aldatzen da, 2. HELBIDERA, 2008ko urriaren 13ko hitzarmen sozialen protokolizazio-eskriuraren bidez. Aurretik, horren egoitza soziala Madrilgo 1. HELBIDEAN zegoen, eta beste egoitza bat zuen Madrilgo 3. HELBIDEKO 1. ERAIKINA eraikinean. Bertan, 1. ERAKUNDE TALDEAREN sozietateetako bat kokatzen da, zehazki, 2. ERAKUNDEA.

b) 2009ra arte, Sozietatearen Administrazio Kontseilua honako hauek osatzen zuten:

1. 1. KONTSEILARI jauna (kontseilari delegatua): helbide profesionala 3. HELBIDEAN du, 2008ko urriaren 13ko hitzarmen sozialen protokolizazio-eskriuraren arabera, eta helbide pertsonala, berriz, Madrilgo 4. HELBIDEAN (1. URBANIZAZIOA), bere NANen arabera.

2. 1. PRESIDENTE jauna: 1. UDALERRIKO 5. HELBIDEAN du helbidea (Madril) (Administrazio Kontseiluaren presidentea).



<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikatutako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
7/2012	R26/2015	2015-12-28	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

3. 1. SOZIETATEA: egoitza AEBn duen 1. ERAKUNDEAREN arrisku-kapital sozialeko enpresa eta Kontseiluko batzordekidea da.

4. 1. BATZORDEKIDEA: Madrilen du helbidea.

Nolanahi ere, 2009ko otsailaren 23an, sozietatearen Administrazio Organoaren aldaketa argitaratzen da Merkataritza Erregistroaren Aldizkari Ofizialean. Hori Administrazio Kontseilua izatetik administratzaile bakarra izatera pasatu zen, 1. KONTSEILARI jauna administratzaile bakar bezala ezarrita.

c) Merkataritza Erregistroan, honako ahaldun hauek agertzen dira inskribatuta:

1. 1. PRESIDENTE jauna (Madril), 2001eko ekainaren 6tik aurrera.

2. 1. AHALDUN jauna, 2008ko urtarrilaren 14tik aurrera (ez da Bizkaiko egoiliar bezala agertzen zergadunen erregistroan).

3. 2. AHALDUN jauna, 2008ko urtarrilaren 14tik aurrera (ez da Bizkaiko egoiliar bezala agertzen zergadunen erregistroan).

4. 3. AHALDUN jauna, 2009ko otsailaren 10etik aurrera, Madrilgo egoiliarra seguruenik (Madrilgo zuzendaritza-zentroko langilea, Finantza eta Inbertsio zuzendari gisa).

5. 1. ZUZENDARI andrea, 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera, Madrilgo egoiliarra seguruenik (Madrilgo zuzendaritza-zentroko langilea, Finantza eta Inbertsio zuzendari gisa).

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
7/2012	R26/2015	2015-12-28	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

d) erakundeak aitortutako helbide fiskalaren egoitza bulego txiki bat da apartamentu-eraikin batean; bertan, pertsona bakar batek egiten du lan, 1. KONTABLE jaunak. 1. ERAKUNDEA sozietatea akziodun, Administrazio Organoko kide, langile edo ahaldun bezala osatzen ez duen pertsona honek adierazten du lankidetzaz-zerbitzuak ematen dizkiola 2. ERAKUNDEA sozietateari (1. ERAKUNDEAK parte hartutako 1. ERAKUNDE TALDEAREN sozietatea), eta zerbitzu horiek administratiboak direla. Zerbitzu horiek 2. SOZIETATEAREN izenean eta horren ordeztan fakturatu dituzte; izan ere, sozietate horren administratzailea eta kidea da. 2. SOZIETATEA 84200 Finantza eta Kontularitza Zerbitzuak epigrafean alta emandako sozietatea da. 1. KONTABLE jaunaren arabera, 2. SOZIETATEA eta 1. ERAKUNDEA lotzen dituen harremana merkataritzakoa eta konfiantzazkoa da soilik, ahozko kontratua izanda jatorri gisa. 2. HELBIDEKO bulegoa 2. SOZIETATEAK alokatzen du.

e) Foru Administrazioak 2008ko irailaren 29an Madrilgo 1. HELBIDEAN gauzatutako Batzarraren Aktaren berri du soilik. Bertan, egoitza sozialaren aldaketari buruzko hitzarmena adostu zen soilik. 1. KONTABLEAK argitzen du ez duela ondoko Batzarren berri, baina izan direla uste du, hitzarmenak egiteko, batez ere, hartzekodunen lehiaketaren aitortzearen inguruan.

f) erakundearen xede soziala higiezinaren sustapena da. Horren proiektu nagusiak Espainian (Madril eta Andaluzia), Errumanian eta AEBn gauzatu dira.

g) aktuarioari ez zaio erakutsi enpresaren kontularitza, eta 1. KONTABLE jaunak adierazten du bere lankidetzaz-funtzioa kontularitza-lanen ingurukoa dela soilik, partzialki. Gainera, 1. ZUZENDARI andrea identifikatzen du kontularitza-lanen arduradun bezala Madrilen, eta aktuarioak argitzen du,

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
7/2012	R26/2015	2015-12-28	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

bere ustez, aipamen horrekin, 1. ZUZENDARI andreari buruz ari dela. 1. ERAKUNDE TALDEAREN informazio korporatiboaren arabera, hori Sail Juridikoaren zuzendaria da Madrilen. Nolanahi ere, aktuarioak ohartarazten du, 2. SOZIETATEAK emandako zerbitzuak 2. ERAKUNDEAREN alde gauzaten direla, ustez, eta ez 1. ERAKUNDEAREN alde. Era berean, adierazten du kontabilitate-dokumentazio guztia lehiaketa-administratzaileen eskuetan egon beharko litzatekeela, hartzekodunen lehiaketaren aitortpena kontuan izanda.

h) erakundea hainbat kontu korronteren titularra da erakunde ezberdinetan; horiek Bizkaitik kanpo dauden sukurtsaletan daude kokatuta, eta gehienak Madrilen. Gainera, 1. KONTABLE jaunak adierazten du bankuko dokumentazioa Madrilgo lan-zentroan jasotzen dela, hori baita gerentzia-zentroa.

i) 1. KONTABLE jaunak adierazitakoaren arabera, kontabilitatearekin batera, fakturak lehiaketa-administratzaileen bulegoetan daude, eta merkataritza-gutuneria Madrilgo lan-zentroan jasotzen da.

j) 1. ERAKUNDEAK ez du inolako lan-zentrorik Bilbon. Ez da jasotzen erakundeak bidean edo amaituta dituen higiezinen sustapen-proiekturik lurralde horretan gauzatu denik.

k) Txostena egiterakoan Gizarte Segurantzatik lortutako informazioaren arabera, enpresak 11 langile zituen; horietako inor ez zen bizi Bizkaian. Aktuarioak Andaluziako edo Madrilgo egoiliar bezala identifikatzen ditu gehienak. Aktuarioak adierazten du langileetako bat administrazio-zuzendaria dela (2. ZUZENDARI andrea), bestea Sail Juridikoko zuzendaria dela (1. ZUZENDARI andrea) eta bestea 2. AHALDUN jauna

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
7/2012	R26/2015	2015-12-28	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

ahalduna dela. Enpresako gainontzeko langileen karguak ezezagunak dira.

l) 1. ERAKUNDEAK aurkeztutako sozietateen gaineko zergaren azken aitortpenaren arabera, horrek ez du lursailik edo eraikuntzarik ibilgetuari dagokionez, baina bai higiezinaren sustapen-proiektuak diren existentzietan, gehienak Madrilen, Andaluzian eta atzerrian (AEB eta Errumania). Aktiboaren zatirik handiena 1. ERAKUNDE TALDEAREN enpresen partaidetzak dira.

- Bizkaiko Foru Ogasunaren txostenak ondorioztatzen du ez dela erakundearen helbide fiskalaren aldaketa eraginkorrik izan Madriletik Bilbora eta, ondorioz, helbide fiskalak Madrilen kokatuta jarraitzen duela.

- 2010eko martxoaren 31n, Bizkaiko Foru Ogasunak 1. ERAKUNDEAREN helbide fiskalaren ofiziozko proposamena igorri zuen. Proposamen hori Zerga Administrazioko Estatu Agentziari igorri zitzaion 2010eko apirilaren 14an eta hurrengo egunean jakinarazi zen, baina Zerga Administrazioko Estatu Agentziak ez zuen erantzun.

- 2011ko maiatzaren 26an, berriro bidali zitzaion txostena Zerga Administrazioko Estatu Agentziari, baina Bizkaiko Foru Aldundiak ez zuen organismoaren inolako erantzunik jaso.

- 2011ko uztailaren 27an, Bizkaiko Foru Aldundiaren Zerga Kudeaketako Zuzendariordetza Orokorrek txostena igorri zuen. 2011ko irailaren 26an, eta horrek errekerituta, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ikuskapen Zuzendariordetzak txosten berria igorri zuen erakundearen helbide fiskalaren inguruan, 2010eko martxoaren 16koan igorritako balorazio berak berretsita.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
7/2012	R26/2015	2015-12-28	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

- 2011ko urriaren 14an, helbidea aldatzeko proposamena igorri zen (2011ko azaroaren 11n jakinarazia), 2011ko irailaren 26ko txostena jarraituz (horren edukia 2010eko martxoaren 16ko txosteneko bera da funtsean), Ekonomia Itunaren 43.Bederatzi artikuluan aurreikusitako prozedura lagunkoirako.

- Helbide fiskala aldatzeko proposamenari buruzko Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren erantzun-faltaren aurrean, eta Ekonomia Itunaren 43.Bederatzi artikuluan aurreikusitako bi hileko epea igarota, indarrean zegoen idazketa zela eta, Zerga Kudeaketako Zuzendariordetzak Txostena igorri zuen 2012ko urtarrilaren 12an, aipaturako artikuluan aurreikusitako prozedura jarraitzeko.

- 2012ko urtarrilaren 23an, Bizkaiko Foru Ogasuneko Tributuen Ikuskapenak Koordinazioko eta Laguntza Teknikoko Zuzendariordetzari zuzendutako txosten berria igorri zuen, helbide fiskalaren aldaketaren proposamenari buruzko Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren erantzun-faltaren aurrean, eta Ekonomia Itunaren 43.Bederatzi artikuluan aurreikusitako bi hilabeteko epea igarota. Artikulu horretan aurreikusitako prozedura jarraitzea proposatzen du.

- 2012ko otsailaren 3an, Zerga Kudeaketako (2012ko urtarrilaren 12koa) eta Tributuen Ikuskapeneko (2012ko urtarrilaren 23koa) Zuzendariordetzen txostenak ikusita, Bizkaiko Ogasuneko zuzendari nagusiak erabaki zuen, Koordinazioko eta Laguntza Juridikoko Zuzendariordetza Orokorrek proposatuta, Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordearen aurrean eskumen-gatazka proposatzea. Hori 2012ko otsailaren 7an erregistratu zen Arbitraje Batzordearen aurrean.

- 2012ko otsailaren 8an, Bizkaiko Foru Ogasunak Zerga Administrazioko Estatu Agentziari eta, 2012ko otsailaren 13an, 1. ERAKUNDEARI jakinarazi zien,

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
7/2012	R26/2015	2015-12-28	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

2012ko otsailaren 3an, Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordearen aurrean gatazka proposatzea erabaki zuela.

- Gatazkaren izapidetzea onartu aurretik, 2014ko ekainaren 20an, 1. ERAKUNDEKO lehiaketa-administratzaileak (1. LEHIAKETA ADMINISTRATZAILEA, 2. LEHIAKETA ADMINISTRATZAILEA ETA 3. LEHIAKETA ADMINISTRATZAILEA) idazkia aurkeztu zuten Arbitraje Batzordearen aurrean. Horri hainbat dokumentu erantsi zitzaizkion, gatazka ahal bezain laster konpontzea eskatuz. Idazki eta dokumentu horien edukia bi alegaziotan laburtzen da funtsean:

A) Lehen alegazioan, erakundeak adierazten du, idazkia jasaten ari zen defentsa-gabeziaren ondorioz artikulatzen dela, «alderdi horrek eskatutako 2. ZENBATEKOA euroko 2010eko apirileko aldiari dagokion BEZ itzultzeko eskaera-prozeduran, Administrazioak gauzatutako jarduera eza dela eta.

Prozedura horretan, nabarmen gaintu dira BEZ itzultzeko legalki ezarritako sei hilabeteak; izan ere, 4 urte baino gehiago igaro dira alderdi horrek 2010eko apirileko BEZaren autolikidazioa aurkeztu zuenetik; bertan, dirua itzultzea eskatzen zen, hori lortu gabe eta aipatutako aldiko egiaztapenaren xedea izan gabe.

Nik ordezkaturako pertsonak ulertzen du eskaera hori geldituta dagoela, itzultzeko eskubidearekin zerikusirik ez duten gai administratiboak direla eta; izan ere, ez da itzultzen aurkeztutako eskumen-gatazkaren ondorioz, Foru Ogasunak ulertzen duelako alderdi horren helbidea Madrilen zegoela eta, ondorioz, Zerga Administrazioako Estatu Agentziak itzuli behar duela. Aldiz, Zerga Administrazioako Estatu Agentziak ulertzen du helbidea Bilbon

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikatutako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
7/2012	R26/2015	2015-12-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen helbide fiskala

zegoela; beraz, Bizkaiko Foru Ogasunak itzuli behar du dirua, eta horrek inolako justifikaziorik ez duen kalte nabarmena dakar.

Sortutako jarduera eza dela eta, alderdiak Erreklamazio eta Kexa idazkia aurkeztu du aurtengo apirilean, Ogasuneko Estatu Idazkaritzaren Zergadunaren Babeserako Kontseiluaren aurrean, eta beste bat Foru Ogasunaren aurrean, norabide berean».

B) Bigarren alegazioan, erakundeak atzerapenak eragiten dion kaltea nabarmentzen du eta, azkenik, Arbitraje Batzordeari eskatzen dio «gatazka ahal bezain laster konpontzeko, orain dela lau urte baino gehiago eskatutako eta nik ordezkaturakoak zorpetutako masaren aurkako kredituen betebeharren betearazpena galarazten ari den eskatutako itzulera desblokeatzeko».

- 1. ERAKUNDEAK 2014ko ekainaren 20ko idazkiari erantsitako dokumentazioaren artean, Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren aurrean Zergadunaren Babeserako Kontseiluari igortzeko aurkeztutako 2014ko apirilaren 4ko kexa aurkitzen da (horren sarrera 7an erregistratu zen), bai eta 2014ko apirilaren 4an prestatutako eta erregistratutako Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Zuzendaritza Orokorraren aurrean aurkeztutako kexaren testua ere. Bi idazkiak berdinak dira funtsean. Nabarmendu beharreko gertaerak honako hauek dira:

(1. ERAKUNDEAK) «Madrilen izan du bere helbide fiskala 2010eko martxora arte, eta Bilbora aldatu zuen data horretatik aurrera. Horregatik, aipatutako urteko martxora arte, lurralde erkidean aurkeztu zituen BEZ aitortpenak eta, apiriletik aurrera, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Sailaren aurrean aurkeztu zituen BEZ aitortpenak.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
7/2012	R26/2015	2015-12-28	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

1. ERAKUNDEAK Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Sailaren aurrean (aurrerantzean, BFO) aurkeztu zuen 2010eko apirilaren aldiko balio erantsiaren gaineko zergaren autolikidazioaren 303 eredua. Bertan, 2. ZENBATEKOA euroko kopurua itzultzea eskatzen zen».

Ondoren, eta urtebete baino gehiago igarota sozietateak eskatutako itzulera eta inguruko jakinarazpenik gabe, «informazioa eskatu zion BFOri. Horrek adierazi zion, bere ustez, eskumen-gatazka zegoela estatuko eta Foru Aldundiko administrazioen artean; izan ere, BFOren ustez, 1. ERAKUNDEAK Madrilen mantentzen zuen bere helbide fiskala.

2010eko ekitaldian, 1. ERAKUNDEAREN hartzekodunen lehiaketa aitortu zen, beharrezko epemugetan ordaintzeko ezintasunaren ondorioz».

Administrazioaren gelditasunaren aurrean, erakundeak Bilboko 2. Merkataritza-arloko Epaitegiari zuzendutako laguntza judizialeko idazkia aurkeztu zuen prokuradorearen bidez. Bertan, laguntza eskatzen dio aipatutako epaitegiari, eskatutako BEZ itzultzeko Bizkaiko Foru Aldundiari jarritako errekerimenduaren bidez, baina ez du inolako eraginik izan.

Ondoren, 2012ko otsailaren 3an, Bizkaiko Foru Aldundiak gatazka aurkeztu zuen Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen aurrean, 1. ERAKUNDEAREN helbide fiskalaren zuzenketaren inguruan, Juntaren aurrean formalki adieraziz aipatutako erakundeak ez zuela inoiz aldatu bere helbide fiskala Madriletik Bilbora.

Nolanahi ere, garrantzitsua da nabarmentzea puntu honetan, Euskal Autonomia Erkidegoan aurreikusitako Arbitraje Batzordearen Araudia onartzen duen abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuaren 15.2 artikulua honako hau ezartzen duela:



<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
7/2012	R26/2015	2015-12-28	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

«2. Harik eta eskumen-gatazka ebazten ez den arte, kasuan kasuko zergadunak zergapetzen aritu den administrazioak zergadunok bere eskumenaren pean edukitzen jarraituko du, alde batera utzita administrazioen artean egin behar diren tributu arloko zuzenketa eta konpentsazioak. Administrazio horien jarduketak, bestalde, Arbitro Batzordearen arabera, administrazio eskudun berriak jatorria duen datara atzeratu beharko ditu bere jarduerak, ondorioetarako.

Aurreko legeria kontuan izanda, eskumen-gatazkaren ebazpenak ezin dio inola ere zergadunari eragin, alderdi honi eragiten ari zaion bezala».

- 2014ko ekainaren 20an, 1. LEHIAKETA ADMINISTRATZAILE jaunak, 2. LEHIAKETA ADMINISTRATZAILE jaunak eta 3. LEHIAKETA ADMINISTRATZAILE jaunak aurkeztutako idazkia sartu zen Arbitraje Batzorde honetan. Horiek erakundearen lehiaketa-administratzaile/likidatzaile eta ordezkari bezala jarduten zuten, eta gatazka ahal bezain laster ebaztea eskatzen duten, eskatutako itzulera desblokeatzeko; izan ere, ordezkaturakoa zorpetutako masaren aurkako kredituen betebeharrak betearaztea galarazten ari da.

- Berriz, gatazka onartu aurretik, 2014ko azaroaren 18an, 1. ERAKUNDEAREN lehiaketa-administratzaileek idazkia aurkeztu zuten Arbitraje Batzordearen aurrean, «Bizkaiko Foru Ogasunak aurkeztutako eskumen-gatazka ahal bezain laster ebaztea eskatuz, horrela, ordain dela lau urte baino gehiago aurkeztutako BEZ itzuleraren egoera bidegabea eta irregularra desblokeatzeko; izan ere, horrek modu arriskutsuan galarazten du nire ordezkaturakoa zorpetutako masaren aurkako kredituekiko betebeharren betearazpena, eta modu larrian oztopatzen ditu lehiaketa-prozeduraren jarraipena eta amaiera». Eskaera hori

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikatutako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
7/2012	R26/2015	2015-12-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen helbide fiskala

aurretik hainbat ekintza eta gertaera azaldu ondoren egiten dute. Horietatik, helburu honetarako interesatzen zaizkigunak honako hauek dira:

«Egoera honetan, bi gai daudela ebazleen mahaiaren gainean: a) batetik, BEZ itzultzeko gai nagusiaren ingurukoa (kasuari dagozkion egokitzapenekin), 2008ko urtarrilaren 10eko salerosketa-eragiketaren ondorioz; eta b) Bizkaiko Foru Aldundiaren ikuskapenaren ustez, ITZULI behar den 3. ZENBATEKOA euroko zenbatekoaren itzulerari buruzkoa (2013-11-29ko txostenean agertu bezala).

Argi dago Administrazioak berak aitortutako kopurua ez dela itzuli, ezin justifikatuzko gehiegizko moduan; horrek kalte larria eragin dio lehiaketatuari, eta izugarri zaildu ditu lehiaketa-administrazioari eskatutako lanak, hori betetzea ia ezinezko bihurtuta.

Beste balorazio batzuk alde batera utzita, argi dago 4 urte baino gehiago igaro direla zenbateko horien itzulera-prozesua martxan jarri zenetik eta, administrazioen arteko joko onartezinean, gaiak konpondu gabe jarraitzen du, prozesuaren izaera judiziala dela eta, horrek merezi duen babes berezia eta, Merkataritzako epaile beraren organo laguntzaile gisa, lehiaketa-administrazioaren parte-hartzea alde batera utzita. Ondorioz, Arbitraje Batzordeari eskatzen diogu eskaera horiek izapidetzea, horiek ebazteko beharrezkoak diren legezko neurriak hartuta».

- 2014ko abenduaren 1ean, Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak Bizkaiko Foru Aldundiak aurkeztutako gatazkaren izapidea onartzea erabaki zuen, eta hori behar bezala jakinarazi zitzaion Zerga Administrazioko Estatu Agentziari.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
7/2012	R26/2015	2015-12-28	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

- Zerga Administrazioko Estatu Agentziak alegazio-idazkia aurkeztu zuen, hainbat dokumentazioarekin batera, Posta Zerbitzuan, 2015eko otsailaren 6an. Horren edukia honako hau zen, nagusiki:

a) erakundea hartzekodunen borondatezko lehiaketa-prozesuan dago murgilduta, Bilboko 2. Merkataritza-arloko Epaitegiaren aurrean. Hori 2010eko otsailaren 9ko autoaren bidez onartu zen eta, era berean, lehiaketa-administrazioaren kide guztiak izendatzen dira, guztiek helbidea Bilbon izanda. (Idazkiari erantsitako dokumentazioan, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak adierazten du ebazpena 2010eko otsailaren 9koa dela eta 2010eko martxoaren 8an inskribatu zela BIZKAIKO Merkataritza Erregistroan. Halaber, adierazten du administratzaileak 3. LEHIAKETA ADMINISTRATZAILE jauna, 2. ENPRESA ordezkatzuz, 2. LEHIAKETA ADMINISTRATZAILE jauna eta 1. LEHIAKETA ADMINISTRATZAILE jauna direla. Prozeduran zehar, epaitegi beraren 2012ko urriaren 10eko ediktuaren bidez, lehiaketaren likidazio-fasea irekia aitortu da, honako hau hitzartuta: «administrazio-gaitasunen galarazpena zein esku hartutakoaren xedapena aitortu ziren horren ondarearen gainean, merkataritza-sozietatea desegitea aitortuta, erakundearen administratzaile sozialen funtzioaren etetea bezala; izan ere, lehiaketa-administrazioak ordezkatu ditu horiek aipatutako datatik aurrera.

b) sozietatearen administratzaileen jarduera-eremua oso mugatua da; izan ere, ekintza gehienak lehiaketa-administratzaileen baimenaren menpe daude.

c) lehiaketa-administratzaileen gaitasun-zabalera kontuan izanda, logikoa dirudi pentsatzea funtzio horiek gauzatzea ahalbidetuko duen enpresaren dokumentazioa Bilbon egon behar dela.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
7/2012	R26/2015	2015-12-28	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

d) lehiaketa-administratzaileek euren helbide fiskala Bizkaiko Lurralde Historikoan dutenez, sozietatearen eta horren ondare sozialaren kudeaketa aipaturako Lurraldean gauzatzen da.

e) argi dago zergapekoaren zein horien administrazioaren interes nagusien gunea Bilbon dagoela, uztailaren 9ko 22/03 Lehiaketa Legearen 10. eta 12. artikuluek xedatu bezala.

f) Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren aurrean aurkeztutako helbide-aldaketaren aitortpenak (036 eredua) ziurtasun-presuntzioa du.

g) gainera, zergapekoaren lehiaketa-egoeratik ondorioztatutako frogaelementu gehigarriak existitzen dira. Horiek funtsatzen dute horren helbidea Bilbon dagoela 2008ko urriaren 2tik, eta honako hauek dira:

h) gutxienez, Batzar Orokor bat egin da egoitza soziala Bilbora aldatu ondoren, zehazki, 2009ko urtarrilaren 22an, 2009ko urtarrilaren 26ko eskritura publikoan islatu bezala. Horrek aipaturako 22an egindako Kideen Batzar Orokorreko hitzarmen sozialak jakinarazten ditu.

i) zerga-agente batek bisita egin du Madrilgo 3. HELBIDEAN kokatutako helbidera, eta 2010eko otsailaren 11ko eginbidean jakinarazten da eraikineko atezainak dioela, zergadunak bertan bulegoak izan bazituen ere, hilabeteak zirela utzi zituenetik.

j) era berean, 2. UDALERRIKO (Madril) 6. HELBIDERA egin zen bisita. Bertan 1. ERAKUNDE TALDEAREN bulegoak daude, eta 2010eko urriaren 8ko eginbidean jakinarazten dira 1. ZUZENDARI andrearen adierazpenak. Horien arabera, sozietatearen helbide fiskala Bilboko 2.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
7/2012	R26/2015	2015-12-28	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen helbide fiskala

HELBIDEAN dago; izan ere, bulegoak ditu bertan. Gainera, eransten du, bisita egindako helbidean, sozietatearen merkataritza- eta administrazio-kudeaketak gauzatzen direla.

K) zergapekoarekin lan-loturarik ez duela badirudi ere, 1. KONTABLE jaunak bere iritzia ematen du Batzarren gauzaperari eta zergapekoaren beste barne-aspektu batzuei buruz baina, batez ere, 1. ZUZENDARI andrea adierazten du, kontabilitatearen arduradun gisa.

l) aldiz, 1. ZUZENDARI andreak, Taldearen Sail Juridikoaren zuzendariak, adierazi zuen sozietatearen helbide fiskala Bilboko 1. HELBIDEAN dagoela (bulegoak ditu bertan), 2012ko urriaren 10eko eginbidean jaso bezala.

